



ERRETERIA
UDALA
Kultura / Cultura

Espediente zk./Nº expediente: 2022SDBD0002

Gaia/Asunto: Legamia: arte bizien sorkuntza eta mediazio egonaldi programetarako beka / Legamia: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas

Eskatzailea/Solicitante: BERDINKI ZIRKUS GARAIKIDE ELKARTEA **NAN(IFK)/DNI(NIF):** G75234492

Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA **Dekretu zk./Nº Decreto:** 1512

JAKINARAZPENA

Jakinarazten dizut Zinegotzi delegatuak 2024ko maiatzaren 29an, ondorengo dekretua eman duela:

AURREKARIAK

Kultura Zinegotzi delegatuak 2022ko urriaren 27an 2022/2447 zenbakiko dekretuaren bidez, Berdinki Zirkua konpainiari, Irati González Jaimerenak ordezkaturik, 4.000 € ematea onartu zen, Legamia: arte bizien sorkuntza eta mediazio egonaldi programetarako bekaren bitartez.

Berdinki Zirkuak 2022ko abenduaren 26an hasi zuen bere egonaldiaren lehen zatia, Legamiak finantzaturako programa 2023an amaitzeko aurreikuspenarekin.

2023an zehar, Berdinki Zirkuko artista den Irati González Jaimerenak adierazi zigun haurdun zegoela eta ondorioz, ezin izango zutela amaitu bigarren egonaldia aurreikusitako datatan.

Haurra jaio eta amatasun baja amaitu ondoren jakinarazi ziguten Legamia deialdian aurkeztutako programa amaitzeko prest zeudela. Horiek horrela, Sorlekuko egutegia teknikariekin adostu ondoren Legamiara aurkeztutako programa bete zuten apirilaren 8tik 12ra eta ondoren egindako egonaldi artistikoaren memoria aurkeztu.

Udal Kontu-hartzailearen fiskalizazio-txostena, 2024ko maiatzaren 28koa da.

ZUZENBIDE OINARRIAK

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.

Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-).

- 2022ko maiatzaren 11an Kultura Zinegotzi Delegatuak emandako 2022/1030 dekretuaren bidez onartu ziren "Legamia: arte bizien sorkuntza eta mediazio egonaldi programetarako beka" ematea arautzeko Oinarri Orokorrak.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.



**ERRENTERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

Honen bidez,

EBATZI DUT

1.- Dirulaguntzako bigarren ordainketa egitea Berdinki Zirkua taldeari, Erreenterian, Legamia: arte bizen sorkuntza eta mediazio egonaldi programetarako beka arloko jarduerak egiteko.

2.- BAIMENTZEA ETA XEDATZEA 1.200€ko gastua (BEZa barne) Berdinki Zirkua taldeari (AD-1916-2024) zorpekoaren kontura - 1 0830.481.02.333.10 2024 (9683).

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.

NON: dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegia.

EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Erreenterian, sinaduran agertzen den datan

Idazkari orokorra

Ainhua Esnaola Zubeldia



EKS | CSV: ESKU1d836163-9a2f-469f-83dc-3d7a0ca2544a

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022SDBD0002-JAKINARAZPENA III/NOTIFICACIÓN III (BERDINKI ZIRKUS